

Asisko gutuna

2020ko martxoa 1. printzipioa. Eguneroko bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala 137. zenbakia

Zer jasotzen dugu maite ditugun eta maite gaituztenengandik? Ilusioa, bizi-poza, betetasuna... Eta Jainkoagandik?

Jainkoak gure bizi eta poz iturri izan nahi du. Batez ere.

Gogoetarako gaia

Jainkoa poz iturri

Gaztelera zko atsotitzak dio santu tristea santu kaskarra dela. Eta herriko jakituriak zuzenki seinatzen digu Jainkoak eraldatutako pertsonak poztasuna transmititzen duela ezbeharrak maiz ukitutako gure bizitzaren erdian.

Maria bere Magnificat kantikan Jainkoak handikiro jokatu duela poztzen da. Historian zehar bere herriarekin egin dituen handitasunengatik, beti behartsuaren eta apalaren ondoan agertuz, eta, berarekin egin dituen handiengatik, noski. Mariak gorai patzen du eta abesten dio Jainkoari txiroetatik abiatuz, baztertuetatik, gosetuetatik. Alaitasunez betetzen da “harroak suntsitzen dituen Jainkoarekin, beren aulkitik handizkiak bota eta apalak eseri erazten dituenarekin, gosetuak asebeta eta aberatsak hutsik bidaltzen dituenarekin.”

Izan daiteke alaia, mespretxuaren, sufrimenduaren, gaixotasunaren... erdian? Bai, sako nagotik sortzen den iturria dagoenean. Eta Jainkoa isurtzen den iturri hori da eta bizia

ematen du eta poztu ukitzen duen guztia. Santuek poztasun honetaz hitz egin digute: San Frantziskok, Santa Teresak, San Juan de la Cruzek... Eta hitz egin digute bere gaixotasunen erdian, bere anai-arreben mespretxuaren erdian, edo Inkisizioaren judizioen erdian, edo espetxetik.

Baina poztasun hau ez da, inola ere, ateratzen egoera ezkorretan soilik, baizik pertsonaren sakonetik ateratzen denez gero, jaso eta bere egiten ditu bizitzako beste poztasunak, eta haiekin gozatzen da, nola ez, baina ez du haien beharrik barrutik sortzen zaion osotasuna sentitzeko. Nahiz eta bizitzako beste poztasun horiek falta bizipoza sentitu eta zabalteko gai da.

Emakume samariarrari bezala ea guri ere ematen zaigun ur horretatik edatea, eta horrela disfrutatu eta gozatu ahal dezagula Jainkoarekin bere konfiantza jarri duten pertsonen barrutik ateratzen zaion bizi-poztasunaz.

Bibliako pasartea: Fil 4,4-9

Poz zaitetzte Jaunarekin beti! Berriro diotsuet, poz zaitetzte! Ikus dezala jende guztiak zein bihozbera zareten. Hurbil da Jauna! Ez eduki ezereen kezkarik, baizik eta, gorabehera guztietan, agertu Jainkoari zeuen eskabideak, otoitz eta erregu eginez eta eskerrak emanez. Eta guk pentsa dezakeguna baino handiago den Jainkoaren bakeak zainduko dituzuen gogo-bihotzak Kristo Jesusen bidez.

Gainerakoan, senideok, hartzazue aintzat egiazko, gizabidetsu, zuzen, garbi, maitagarri eta goresgarri, bertutetsu eta onargarri den guztia. Egizue niregandik ikasi, hartu eta entzun zenutena eta niregan ikusia. Eta bakea ematen digun Jainkoa zeuekin izanen duzue.

Frantziskotar espiritueltasuna

Frantzisko santuak baieztatzen zuen alaitasun espirituala dela erremediorik segurue-
na etsaiaren azpikeria eta maltzurkeria guztien aurka. Honela zioen: "Orduan pozten da
gehien deabrua, Jainkoaren zerbitzariari espirituko poza kentzea lortzen duenean. Hautsa
darama berekin eta, zirrikiturik txikiena ere aprobetxatuz, kontzientzian sartzen saiatzen
da, arimaren xalotasuna eta bizitzaren garbitasuna zikintzeko. Baina giza bihotza alaita-
sun espiritualez beterik denean, alferrik isurtzen du sugeak bere pozoi hilgarria. Kristoren
zerbitzaria poztasun santuz betea ikustean, ezin diote deabruak minik egin. Baina haren
barrena negarti, gogogabe eta goibel denean, oso erraz nagusitzen zaio tristura edo poz
hutsaletan murgiltzen da".

Beraz, beti bihotz alaiz bizitzen saiatzen zen santua, eta espirituaren ukendua eta alaitasu-
naren olio gordetzen. Ardura handiz uxatzen zuen melankoliaren gaitz guztiz kaltegarria,
eta hura bere barnera sartzen sentitu orduko, bizkor jotzen zuen otoitzera.

Hau esaten zuen: "Jainkoaren zerbitzaria zerbaitek asaldatzen badu, gertatu ohi denez, be-
rehala altxatu behar du otoitz egiteko, eta Aita gorengoaren aurrean tinko egon, bere salba-
menaren poza itzul diezaion arte. Izan ere, tristuran irauten badu, Babiloniako gaitzak joko
du, eta hau, negar-malkoz garbitu ezean, herdoil iraunkor bihurtuko da haren bihotzean".
(1Zel 125)

Otoitza

Bizitzeko mila arrazoi badituzu,
bakarrik sentitzeari utzi badituzu,
kantatzeko gogoarekin esnatzen bazara,
guztiak hitz egiten badituzu
–hasi bideko harrietatik eta izarretaraino,
arrastaka dabilten ipurtargietatik
itsasoko jaun diren arrainetaraino–,

haizeak entzuten badituzu
eta isiltasuna aditzen,
egizu jauzi pozaren pozez!
Maitasuna zurekin dabil,
zure laguna da, zure anaia da...

Helder Câmara

Gutuneko azken hitzak

"Poza eta zoriona desberdinak dira. Zoriona gertatzen denaren mendean dago. Poza barnekoa da."
(Rick. Warren)

2020ko martxoko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen
dauzkate martxoko erreferentzia guztiak

1 Mt 4,1-11	8 Mt 17, 1-9	15 Jn 4	22 Jn 9	29 Jn 11
2 Mt 25,31-46	9 Lk 6,36-38	16 Lk 4, 24-30	23 Jn 4, 43-54	30 Jn 8, 1-11
3 Mt 6, 7-15	10 Mt 1,16.18-21.24a	17 Mt 18,21-35	24 Jn 5,1-16	31 Jn 8, 21-30
4 Lk 11, 29-32	11 Mt 20, 17-28	18 Mt 5,17-19	25 Lk 1,26-38	
5 Mt 7,7-12	12 Lk 16, 19-31	19 Mt 1, 16.18-21.24a	26 Jn 5, 31-47	
6 Mt 5, 20-26	13 Mt 21, 33-43.45-46	20 Mk 12 28-34	27 Jn 7,1-2.10.25-30	
7 Mt 5, 43-48	14 Lk 15, 1-3.11-32	21 Lk 18,9-14	28 Jn 7, 40-53	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Martxoko Otoitza
hilaren 27an izango da.